

SANTUARIO DE ARANZAZU

Teléfono: 78-11-72

OÑATE (Guipúzcoa), 1971-ko urriak 6

Piarres Lafitte

USTARITZ

Piarres adiskidea: Agur!

Hemen, Arantzazun, egun gutxi barru liburu bat aterako da. Hain zuzen Joxe Azurmendiren liburu berri bat. Berria diot, zeren jadanik agertua du "ETNIA, HIZKUNTZA TA MARXISMOA" deritzaion liburu ospetsua.

Oraingo hau Joxeren poesien bilduma bat da, antologi erara osotua. "HITZ BERDEAK" izenpean agertuko da.

Hau dala-ta, mesede bat eskatu nahi dizugu, alegia, eman dezazula HERRIA asterokoan liburu honen berri. Lehen esan bezala, ez da oraindik inprimategitik atera, baina hamabost bat egunera aterako da.

Bestalde Joxe ezaguna da euskaldunen artean. "Joxe Azurmendi lehenengo mailako intelektual bat dela" dio Karresorok; guk goren mailako poeta bat ere ba dela erakutsi nahi dugu antologia honen bidez.

"Azken urteotan euskal poematikak lortu dituen goi mailetan toki bereziak merezi dituzte Joxeren poema hauek" (Juan San Martin, Hitz-aurrea)

"Joxe zenbait poesia publikaturen eta publikatu gabeko eskuz esku darabilzkgun koadernoren bidez, nahiko ezaguna da euskal-poesia zale batzuk. Guretzat baino deskubrimendu harrigarriagoa eta pozgarriagoa izango da beraz, Joxe poeta, gainera euskal irakurle jendetzarentzat" (Gandiaga).

Berria edo notizia hau da. Zeuk erabagi nun, noiz eta nola eman. Ez ahaztu, ordea, honekin guri egiten diguzun mesede handia. Esker bizienarekin, agur eta erantzunaren zai gaude.

Fr. Joxe Mari Arregui